

PRENTSA OHARRA

Seth Troder estatubatuarra, Txef_A eta Block2Club maiatzeko Art After Dark saioan Guggenheim Bilbao Museoa

Maiatzaren 8ko, ostiraleko, Art After Dark saioari hasiera emango diote **Block2Club** DJ taldeak. Dave One-k eta AR-Lois-ek hamarkada bat baino gehiago daramate DJ moduan lanean, Almah Mater taldearen kide gisa. Musika gustu antzekoa dutenez, Block2Club sortu zuten, Dave One Bilboko Fever klubaren Bullshit Bilbao Club lan-taldean sartu ondoren. Haien saioetan azken arrakastez eta *trap music*, *EDM* eta *dubstep* doinuen nahasketez goza daiteke. Block2Club nazioarteko artista handien ondoan izan da agertokian, tartean, The Zombie Kids, Feed Me, Danny Ávila, DJ Jekey, The Warriors eta askoz gehiago.

23:00etan Museoko Atriora itzuliko da **ELTxef_A** —Aitor Etxebarria—. Diskoak argitaratu ditu etxe askotan, hala nola, Permanent Vacation, Mule electrónica, Hypercolour eta Fiakun, berak sortutako diskoetxea. Iraupen luzeko bi disko kaleratu ditu, *Slow Dancing In A Burning Room* (2012) eta *We Walked Home Together* (2014). Sónar jaialdian parte hartu du eta Berlinen, Rio de Janeiroan, Londresen, New Yorken, Chicagon, Moskun, Vienan eta Mexiko Hirian ipini du musika. Azken urteotan Europatik zein Ameriketatik jartzen du musika astero eta, gaztea den arren, jadanik *underground* giroko klub handietan lan egin du, esaterako, Watergate (Berlin), Verboten (New York), Spybar (Chicago) eta Module (Tokio).

00:00etan **Seth Troxler**-en txanda izango da. AEBko (Kalamazoo, Michigan) DJ honen lana *techno house* doinuak ditu oinarri. DJ lanetan hasi zen Detroiten 16 urte zituela, The Works klubean; hiri horretan ere Melodies and Memories disko-denda entzutetsuan lan egin zuen, eta arin ikasi zituen musika elektronikoaren historiaren nondik norakoak. Eragin dioten artisten artean daude Richie Hawtin eta Moodymann. 2009 eta 2012 artean *The Resident Advisor Top 100 DJ* zerrendan hirugarren, bigarren eta lehen postua, hurrenez hurren, lortu zituen, eta harrezkero ibilbide geldiezina darama: urtean 158 saio egin izan ditu, eta izen handiko lokaletan jarri du musika: Fabric (Londres), Panorama Bar eta Watergate (Berlín), Womb (Tokio), Tenax (Florentzia), Robert Johnson (Frankfurt), The Rex (Paris), Avalon (Los Angeles) eta The End Up (San Fransisco). Berlingo Der Visionäre klub mitikoko DJ egoiliarra da, eta Detroiten, Ryan Crosson eta Lee Curtiss-ekin batera, Tesh Club festak antolatzen ditu. Estudioan izen handiekin lankidetzan izan da, adibidez, Matthew Dear, Art Department, Tiefschwarz, Deetron, Masemenos eta dOP. Visionquest disko-etxea sortu zuen, bai eta Tuskegee, Soft Touch eta Play It, Say It ere. Horrez gain, Londresko Smokey Tails jatetxearen jabe da.

Maiatzaren 8ko gauean, **10:00etatik 01:00era**, Guggenheim Bilbao Museora bertaraten direnek *Niki de Saint Phalle* erakusketaz, Kimsooja artista korearraren *Hariaren ibilbideak* bideinstalazioaz eta *Gure garaiko artea: Guggenheim Bildumen maisulanak* erakusketaz gozatzeko aukera izango dute.

Sarrera (18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua. Salgai txarteldegian eta www.guggenheim-bilbao.es.webgunean.

Bilbon, 2015eko apirilaren 17an